

## JOAN XXIII.a – PAULO VI.a

Joan XXIII.a eta Paulo VI.a ditugu Vatikanoko II. Kontzilioaren protagonistak. Bata Kontzilioaren sortzaile karismatikoa. Bestea Kontzilioaren lemaizain argia. Biok altaretara ja-soak. Joan XXIII.a, 2014ko apirilaren 27an. Paulo VI.a, 2018ko urriaren 14an. Biok neure gaztaroan liluratu ninduenak. Nire asmoa, esker onez, bion garrantzia Vatikanoko II. Kontzilioan zerbait aipatzea besterik ez da izango. Horretarako eurok Kontzilioan egindako hitzaldiak gogoratuko ditut. Eta, zorionez, Luis Baraiazarrari esker, ez bakarrik Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoaren Konstituzioak eta Dekretuak, baita Joan XXIII.ak eta Paulo VI.ak Kontzilio garaian egindako hitzaldiak ere euskera ederrean itzulita daukaguz. Aita Santu bion berbak aitatzerakoan, Aita Luisen itzulpenak erabiliko ditut.

### *Joan XXIII.a, Kontzilioaren sortzailea*

Kontzilioaren sortzaile karismatikoa eta profeta baikorra dogu Joan XXIII.a, baita gizon bihozbera eta errukiz beterikoa ere. Beraren berbak aipatzea nahikoa da. Kontzilioaren inaugurazio ospetsuan, 1962ko urriaren 11n, inoan:

“Hasieran ia ustekabean otu zitzaigun Kontzilio hau. Gerago, Kardinalen Elkargo Santuaren aurrean, iragarri genuen hitz xumeeekin, 1959ko urtarrilaren 25eko egun gogoangarri hartan, San Paulo apostolua Jainkoagana bihurtzearen jaian, Ostiako Bidean dagoen haren basilikan. Horrek zirrara bizia sortu zien bat-batean han ziren guztiei, naturaz gaindiko argierainu batek diz-diz egin balu bezala, eta aurpegiaren eta begie-



tan antzematen zitzaien guztiei barruan gorde ezinik zuten sentipena. Era batera lilurazko itxaropena erne zen mundu osoan eta gizaki guztiak amets ez Kontzilioa noiz hasiko zain jarri ziren”.

Gogoan ditu batzuen eragozpen gogorrak Kontzilio barriaren kontra. Halan eta guztiz ere, baikor eta optimista agertzen jaku:

“Une aintzatsu honetan gure bihotzeko poza handiagoa izan dadin, zilegi bekigu, batzar zabal honetan argi eta garbi esatea, hau da. Kontzilio honen hasiera oso aldekoak diren baldintzetan gertatzen dela.

Maiz iristen zaizkigu –hau geure eguneroko ministerio apostolikoan egiaztatzen duguna da– gure entzumena mintzen duten ahotsak. Ez bai gabe erlijioaz kezkatu dauden pertsonak dira, baina ez dituzte gauzak alderdikierarik gabe eta zu-

hurtasunez epaitzen. Izan ere, pertsona hauek, oraingo gizar-  
tearen egoeran, zorigaitzak eta hondamendiak ikusteko baizik  
ez dira gai. Gure garaia, aurrekoekin alderatuz gero, askoz ere  
txarragoa dela esan eta esan ari dira. Historiatik, bizitzaren  
irakasle den historiatik, ezer ikastekorik ez bagenu bezala por-  
tatzen dira. Aurreko Kontzilioen garaian gauza guztiak ongi zi-  
hoazela uste dute: kristau-doktrina, morala, Elizari zor zaion as-  
katasuna.

Guk uste dugu, munduaren azkenaren aurrean bagina be-  
zala beti txarrena iragartzen duten zorigaitzen profeta hauekin  
ez dagoela bat etortzerik. Aitzitik, oraingo gertaeren joanean,  
gizakiak gauzen ordena berri batean sartzen direla dirudienean,  
Jainkoaren probindentziaren asmo misteriotsoak antzeman be-  
har dira. Hark, bere jakinduriaz, gauzak eta baita gizakiaren  
porrotak ere, Elizaren onerako izan daitezela egiten du”.

Zer esanik ez, Joan XXIII.a bihozberatasun handiko gizona  
dogu. Hasieratik, horixe izango da Kontzilioaren ezaugarria  
eta marka. Errakuntzei aurre egiteko errukiz beteriko bidea  
hartuko dau. Historian zehar ahaztu ezinezko berbak erabiliko  
ditu Roncalli Aita Santuak:

“Elizak beti egin izan die aurre errakuntzei eta askotan baita  
oso zorrozki gaitzetsi ere. Gure garaian Kristoren Elizak nahia-  
go du errukiaren sendagaia erabiltzea eta ez gogortasunaren  
armak eskuetan hartzea. Gaitzetsi beharrean, uste du, bere  
doktrinaren indarra hobeki azalduz erantzun behar zaiela  
oraingo premiei. Bai, badira gaur ere doktrina eta iritzi okerrak,  
baita kontuz ibili beharreko eta baztertu beharreko arriskuak  
ere. Baina hau guztiau leialtasunaren aurka dago argi eta garbi  
eta ondorio negargarrien iturri da. Horregatik, gaurko gizakiak  
eurak hasi direla dirudi gaitzesten. Batez ere Jainkoa eta haren  
legeak aintzat hartu gabe eratutako bizitza, teknikaren aurrera-  
penetan jartzen den gehiegizko ustea edota ongizatean soilik  
oinarrituriko aurrerapena. Gero eta gehiago aitortzen da, per-

tsonaren duintasuna eta hobetze egokia oso baliotsua dela, baina lortzen zaila. Gauzarik handiena hau da: azkenik ikasi dela besteei ezarritako kanpoko indarkeria, armen indarra eta botere politikoa ez direla gai gizakiak estu hartzen dituzten arazo larriak konpontzeko.

Egoera honetan, Eliza Katolikoak, Kontzilio Ekumeniko honen bidez egia erlijiosoaren zuzia altxatzean, guztien ama maiztagarritzat agertu nahi du bere burua, onberatasun eta patientziaz beterik, eta berarengandik aldentutako seme-alabenganakako errukiak eta gupidak hartua ere bai”.

### *Paulo VI.a, Kontzilioaren lemazaina*

Joan XXIII.a, 1963ko ekainaren 3an hilko da. Eta urte berrean, ekainaren 21ean, Montini kardinala izango da aukeratua Aita Santu. Aurrerantzean bere izena Pablo VI izango dau. Egokia eta ederra benetan Aita Santu barriaren laudorioa Joan XXIII.aren oroipena ohoratzean, Kontzilioaren bigarren etaparen hasieran:

“Honetaz oroitzean, ezin gara gelditu hain maite izan genuen geure aurretiko agurgarri eta gogoangarri Joan XXIII.a aipatu gabe. Haren izenak, orain gu gauden Aulki honetan ikusi ahal izan genuenoi, haren onberatasun eta apaiz-irudia dakarkigu gogora. Iazko urriaren 11n eman zion hasiera Vatikanoko II. Kontzilio honen lehen jardunaldiari, eta ez Elizak soilik, baita gizaki guztiak ere gaurko munduaren ahots profetikotzat hartu zuten hitzaldia egin zuen. Hitzaldi hura oraindik bizi-bizi dago gure oroimenean eta gure kontzientzian. Kontzilioak ibili behar duen bidea erakusten baitu. Hitzaldi hori gure espirituak zalantza orotatik, bide zail honetan zehar izan genezakeen neke orotatik askatzeko gai izango da.

Joan, Aita Santu maite eta agurgarria! Zuri eskerrak eman beharrean gara eta zu goretsi beharrean, Jainkoaren inspirazio

antzeko batez, Elizari bide berriak irekitzeko eta, Jainkoaren graziaz, Kristogandik, orain arte munduarentzat ezkutaturik egon diren ur berri eta oparoak atera ahal izateko Kontzilio hau biltzea agindu zenuelako. (...) Joan, zuk bildu eta hasi zenuen Kontzilioa aurrera doa, eta bigarren jardunaldi honek aurrera egingo du leialki zuk ireki zenuen bidean eta lortuko ditu, Jainkoa lagun, zuk hain gogotik izan zenituen helburuak”.

### *Kristo osoa*

Vatikanoko II. Kontzilioko bigarren izar nagusia Paulo VI.a dogu. Eskerrak berari Kontzilioak aurrera egingo dau. Berak, 1965eko abenduaren 8an, emongo deutso amaiera ere. Kontzilioaren barnean egin ebazan hitzaldiak, bata bestea baino ederragoak izan ziran. Ederrenetarikoa, Kontzilioaren bigarren etaparen hasieran, 1963ko irailaren 29an, egindako hitzaldia. Bere aitasuntzako lehenengo Entziklika antzera aurkeztuko dau egundoko hitzaldi hau:

“Gure asmoa, tradizioak eskatzen duenez, geure lehen Entziklika zuoi eskaintzea zen. Baina hauxe esan genuen geure baitan: zertarako eman idatziz, Kontzilio Ekumeniko honek eskaintzen digun abagune apartaz baliaturik ahoz eman ahal izanez gero? Uste dugu, hitzaldi hau Kontzilioaren eta gure aitasantutzaren atarikoa izan daitekeela. Une honetan, gure ahotsak egin dezake Entziklikaren ordezko”.

Bertoko zatirik hunkigarriena aipatzea merezi dau. Vatikanoko II. Kontzilioaren barnean entzundako fede testigantza zirrargarriena dogu berau. Ez zan holakorik entzun ere egin Kontzilio garaian Erromako San Pedro basilikan. Harrezkero, zenbat bider irakurri eta hausnartu eta erabili izan dodazan berba zerutar honeek:

“Senide agurgarriok, non du hasiera gure bideak? Zein da egin behar dugun bidea, gogoan hartzen baditugu batez ere ez hainbeste lehen azaldutako arrazoiak, bete behar ditugun

jainkozko legeak baizik? Zein da gure bideari ezartzen zaion jomuga? Ezbairik gabe, mundu honetan gauden bitartean, bizitza honetako baldintzetara egokitu behar da jomuga hau. Dena dela, mundu honetako erromesaldi honen ondoren lortzekoa den gizakiaren azken helbururantz jo behar du betiere.

Hain errazak eta garrantzitsuak diren hiru galdera hauek, erantzun bakarra dute, eta une itzaltsu honetan eta batzar honetan berriro adierazi eta mundu guztiari aldarrikatu nahi diogu. Erantzuna Kristo da. Kristo da gure hasiera, gure gidaria, gure bidea; Kristo da gure itxaropena eta gure jomuga.

Argi izango ahal du Kontzilio Ekumeniko honek lotura hau, bat bera eta askotarikoa, finkoa eta bizkorgarria, misteriotsua eta bistakoa, zorrotza eta leuna, Jesu Kristorekin lotzen gaituena, Eliza bizitzaz eta santutasunez betea bat egiten duena, hau da, gu Kristorekin bat egiten gaituena. Hura da gure hasiera, gure bizitza eta gure jomuga. Gure batzarrean ez du beste inolako argik distira egin behar, Kristok baizik, Hura baita munduko argia. Gure adimenek, ez dute beste egarik bilatu behar, Jaunaren hitzak baizik, Hura baita gure Maisu bakarra. Haren aginduei obediencia zintzoaz men egitean baizik ez dugu jarri behar gogoia. Ez dugu euskarrizat izan behar, gure ahultasun pobrea sendotzen duena baizik, haren hitz hauetan oinarritutik: 'Eta ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azken era arte' (Mt 28,20).

Une gogoangarri honetan, zor zaion omena egingo ahal diogu Jesu Kristo Gure Jaunari. Liturgiako hitzak erabiliko ditugu: 'Zeu bakarrik ezagutzen zaitugu, Kristo; Zuri bakarrik otoitz egiten dizugu bihotz garbiz eta leunez, negar eta kantuz, entzun gure eskariak!'. Hitz hauek esaterakoan, gure begi harritu dardarien aurrean Jesus bera agertzen dela dirudi handitasunez, dirdaitu gure basiliketako Pantokrator irudian bezala, Ekialdeko eta Mendebaldeko Elizetako senide agurgarriok. Guk geure aurretiko Honorio III.aren lekua hartzen dugula dirudi, harrésiez

kanpo dagoen San Pauloren Basilikako mosaiko bikainean ageri denez Kristo gurtzen duela. Aita Santua, gorputzez txikia, txunditurik bezala lurrian ahuspezturik ageri da, Kristoren oinei muin egiten. Hau, bere tamaina gailenaz, handitasun gorena duen Maisu bezala, Basilikan biltzen den jendetzaren erdian dago, hau da, arrenka duen Elizaren erdian. Baina ikuskizun hau aurrean dugula dirudi, ez hormako irudian marra eta kolorez agerturik, oraingo geure batzarrean egiaz eta benetan baizik. Honek Kristo hartzen du giza berrerospenaren eta Elizaren hasiera eta iturri, eta era berean Eliza hartzen du Kristo beraren lurreko eta era berean misteriozko bide eta jarraipen. Horrela, gure arimako begiek Joan apostoluak deskribatzen duen Apokalipsiko ikuskizuna ikusten dutela dirudi: 'Gero, ur biziko ibai bat erakutsi zidan aingeruak, beira bezain distiratsua, Jainkoaren eta Bildotsaren tronutik irteten zena' (Ap 22, 1).

Oso egokitzen dugu Kontzilio honek irudi honetan, areago oraindik, ospakizun mistiko honetan, bere sorrera izatea. Izan ere, ospakizun honek, Jesu Kristo gure Jauna, gizon egindako hitza, Jainkoaren Semea eta gizakiaren Semea, munduaren Berrerolea dela aldarrikatzen du, hau da, gizadiaren itxaropena eta haren Maisu eta Artzain bakar eta gorena dela. Hura da bizitzako Ogia, gure Apaiza, gure Oparia, Jainkoaren eta gizakiaren artean Bitarteko bakarra, munduaren Salbatzailea, etortzekoa den betiereko Erregea. Gainera, ospakizun honek, gu Jainkoaren argiz Kristok deituak garela erakusten du, eta haren ikasle, haren apostolu, haren zerbitzari garela. Gu, gainerako fededunekin batera, haren atal biziak gara, Hark fedearen eta sakramentuaren bidez mendeetan barrena moldatuz doan Gorputz mistiko bakar eta handian bilduak. Haren Eliza osotzen dugu, komunitate espiritual eta agerikoa, senide artekoa eta hierarkikoa, orain aldi baterakoa eta noizbait betikoa.

Senide agurgarriok, gogoeta egin dezagun honetaz, oso garantzitsua da eta: Kristo dugu geure Fundatzaile eta geure Buru, ezin ikusia baina egiazkoa. Guk Harengandik hartzen

dugu guztia, Harekin bat izateraino: San Agustinek aipatzen duen Kristo osoa, Elizari buruzko doktrina oro hortik sortzen baita. Hori horrela bada, Kontzilio honen helburu nagusiak argi eta garbi agertuko dira. Labur eta argi izan nahirik, lau kapitulu-tan bildu dugu: haren definizioa, edo hobeki, eliz kontzien-tzia, haren eraberritzea, kristau guztien batasuna berrezartzea eta oraingo gizakiarekin elkarriketa”.

### *Kontzilioaren berariazko ezaugarria*

Baditu Paulo VI.ak beste hamar hitzaldi eder Kontzilioan egindakoak. Azken baten, zelako bizipena dauko Paulo VI.ak Kontzilioari buruz? Kontzilioaren azkenengo fasean egindako hitzaldi distiratsuan, bizipen oso atsegina nabari dau. Baikor, itxaropentsu agertzen jaku. Batez ere maitasunez gainezka. Horixe izango da bere ustez, historian zehar ere, Vatikanoko II. Kontzilioaren ezaugarri bereziena:

“Bai handia dela Kontzilio hau! Ez dirudi zaila denik gure Kontzilioari karitate-ekintza baten izaera ezartzea; karitate-ekintza bizi eta hirukoitza: Jainkoari, Elizari eta gizadiari. Gure maitasuna jadanik agertu da hemen, eta agertuko oraingo eta geroko historian Kontzilio honen berariazko ezaugarri izanez. Hau izango da, bere bizitzako une goren eta kritikoa honetan, Eliza zer den adierazi nahi lukeen gizakiak jasoko duen erantzuna. Galdera hau egingo du: zer egin zuen garai hartan Eliza Katolikoak? Maitatu, erantzungo zaio. Gure Kontzilioa Elizak maitatu egiten zuen, bihotzez maitatzen zuen, esango da. Gure elkartasuna sendotzen duen maitasunak ez gaitu aldentzen gizakiengandik, ez digu uzten haiei jaramonik egin gabe geure interesen zerbitzuan soilik jokatzeko. Alderantziz da: maitasunak, Jainkoagandik datorrenez gero, unibertsaltasuna bilatzen irakasten digu: gure egiak maitasunerantz bultzatzen gaitu; gogora ezazue Apostoluaren aholkua: maitasunean ‘benetakoak izanez, hazi gaitzeen gauza guztietan’ (Ef 4, 15). Baina hemen, batzar honetan adierazia den maitasunaren aginduak izen han-



di eta santua hartzen du: erantzukizuna deitzen zaio; San Paulok ‘bultzatu’ aditza erabiltzen du hori adierazteko: ‘Kristoren maitasunak bultzatzen gaitu’ Honela, gizadi osoaren arduradun sentitzen dugu geure burua. Guztiekin zorretan gaude”.

Baina Paulo VI.ak oinak lur gainean ditu. “Bai badakigu esperientzia garratz eta beti gaurkoaren bidez, maitasunak, eta agian batez ere maitasunak, axolagabekeria, ezezkoa, gutxiespena eta kontrakotasuna aurkitzen dituela aurrez aurre. Ez da dramarik, ez trajediarik Kristoren inmolazioarekin konpara daitkeenik; bere maitasuna eta etsaien gorrotoa izan ziren gurutzeko oinazia sufriarazi ziotenak. Maitatzeko artea sufritzeko arte bilakatzen da maiz”. Frase hau historikoa bihurtuko da.

### *NBEko Itzaldia*

Vatikanoko II. Kontzilioaren garaian, baina Kontzilitik kanpo, Paulo VI.ak, “Nazio Batuen Kontseiluan”, egindako hitzaldia ere aipatzekoa da. Gaur ere itzelezko zirrara sortzen jat irakurtzean. Aspaldian, Urte Barri egunean, ez naz asperetzen, NBEn Montini Aita Santuak esandako berba honeek errepikatzen:

“Sekula ere ez batzuk besteen aurka, sekula ere ez gehiago. Ez ote da horretarako sortu Nazio Batuen Erakundea, gerraren aurka eta bakearen alde? Entzun desagertu ospetsuaren baten hitz argiak, John Kennedy-renak, honela baitzioen orain dela lau urte: ‘Gizadiak azken kolpea eman beharko dio gerrari, edo bestela berak emango dio azken kolpea gizadiri’. Ez da hitzaldi luzeak egin beharrik, zuen erakundearen helburu gorena aldarrikatzeko. Aski da gogoratzea, milioika gizakiren odolak, inon diren eta ezin konta ahalako sufrimenduek, alferrikako sarraski eta izugarritzko hondamendiek ontzat ematen dutela zuek biltzen zaituzten ituna, munduaren geroko historia aldatu behar du ezin batean. Ez gehiago gerrarik, ez gehiago gerrarik! Bakea da herrien eta gizadi

osoaren etorkizuna markatu behar duena. Elkarren senide izan nahi baduzue, utzi zeuen eskuetatik armak erortzen. Ez dago inor maitatzerik, erasorako armak eskuetan direla. Sekula ez da gaur bezain premiazkoa izan, giza aurrerapenak markaturiko garai batean, gizakiaren kontzientzia moralera deitzea. Izan ere, arriskua ez dator aurrerapenetik, ezta zientzietatik ere, ongi erabiliz gero, bestalde, gizadiari erasotzen dioten arazo guztiz larriak konpon baititzakete. Benetako arriskua gizakiarengan dago, gero eta tresna indartsuagoak baitaizka, hondamenerako nahiz konkista gorenetarako gai direnak. Hitz batez esateko, oraingo zibilizazioaren etxea printzipio espiritualen gainean eraiki behar da, hauek baitira gai, ez bakarrik hari eusteko, baita hari argi egin eta bizia emateko ere”.

### *Joan XXIII.a eta Paulo VI.a, Elizaren Santuak*

Joan XXIII.a eta Paulo VI.a, Vatikanoko II. Kontzilioaren arima eta arnasa ditugu! Badaukagu bioi zer eskertu! Zenbat zor deutsegun santu handi bioi! Emoiguzue, santu beneragarririk, zeuon antzera, Jaungoikoa eta Eliza eta gizadia maitatzea!

Laburpen gisa, hemen bion pentsamendu eder bi: “Elizak, Kontzilioaren bidez, guztien ama maitagarritzat agertu nahi du bere burua” (Joan XXIII.a). Eta bestea: “Ez gehiago gerrarik, ez gehiago gerrarik! Bakea da herrien eta gizadi osoaren etorkizuna markatu behar duena” (Paulo VI.a).

*A. Olea*